

RAMADANARI BURUZKO ESKOLETARAKO GIDA



✦ Helburua

Ramadanarekiko ezagutza, errespetua eta inklusioa sustatzea eskola-ingurunean, ikasle musulmanei akonpainatu eta gainerako ikasleak sentsibilizatzeko tresna praktikoak eskainiz.

1. Zer da Ramadana? Noiz eta nola ospatzen da?

- ◆ Ramadana 9.hilabete sakratua da egutegi islamiarrean, baraualdi, hausnarketa eta komunitatean bizitzeko garaia.
- ◆ Hilabete honetan, musulmanek egunsentitik eguzkia sartu arte barau egiten dute.
- ◆ Barauaz gain, otoitza, elkartasuna eta familia-loturak sendotzeko garaia da.
- ◆ Ramadanaren data urtero aldatzen da, ilargi islamiarraren egutegiari jarraitzen baitu.
- ◆ Aurten martxoaren 1etik izango da, ilargiaren arabera, martxoaren 30era edo 31ra arte.
- ◆ Ramadanaren ondoren, hilabete baraua, festa garrantzitsu bat ospatzen da, "baraua hausteko festa" deitua, lagun, senide edo bizilagunekin gosari komunitario bat eginez.
- ◆ Ramadanaren ondorengo neska-mutilek opariak, paga edota dirua, arropa berria eta abar jasotzen dituzte.

◆ Adibide praktikoa:

- 📖 Ramadanaren amaieran ospakizunari buruzko ipuin bat irakurri: **“Eid al fitr-eko oparia” (eusk / arab)**. Ipuin honek gizatasun unibertsalaren balioak lantzen ditu.



- 📖 Era berean, hainbat herrialdetan Ramadana nola ospatzen duten erakusten duten irudiak ere ikus daitezke ikasgelan.

2. Nola bizi dute Ramadan txikienek?

- ◆ Haur txikiak ez daude behartuta baraua egitera, baina batzuek partzialki egiten dute beren kulturarekin familiarizatzeko (batez ere pubertarotik aurrera).
 - ◆ Haurrek beste modu batzuetan parte hartzen dute, hala nola, janari bereziak dastatzen, beraien etxea apaintzen, gurasoekin eskulanak egiten...
 - ◆ Meskitara gehiago joaten dira, balioei buruz ikasteko: enpatia, gure nagusiekiko errespetua, partekatzea, pazientzia eta daukagun guztiagatik eskerrak eman eta abar... (Eskerrak Alhamdulillah moduan adierazten da)
 - ◆ Garrantzitsua da kontuan izatea haur batzuk nekatuago egon daitezkeela egunean zehar.
- ◆ **Adibide praktikoa:**
- 🎨 Haurrek Ramadana ospatzea nolakoa izango litzatekeen marraztu edo idazteko jarduera bat egitea.



3. Ikasle musulmanentzako inklusio keinu txikiak

- ◆ **Islam-ean hilabete sakratu honen aintzatespena eta errespetua erakustea.**
 - ✓ Ikasle musulmanak zoriondu **"Ramadan karim"** (Karim: eskuzabala esan nahi du, hilabeten honetan eskuzabalak izatea ikasten da) esaldiarekin.
 - ✓ Lagungarria izango litzateke, bazkalorduan leku lasai batean egoteko aukera izatea, behar izanez gero.
 - ✓ Jarduera fisiko biziarekin malguak izatea, batzuk nekatuago senti daitezke.
- ◆ **Adibide praktikoa:**
 - 📄 Musulman ikaskideentzako zorion-txartel bat marraztea edo mezu bat idaztea animoak eta errespetua erakutsiz. (horrek praktika hau normalizatuko du eta haur musulmanak ez dira arraroak sentituko)

4. Ramadana aprobetxatzea kulturartekotasuna eta munduko ospakizunak lantzeko

♦ Ramadanen esanahia modu errazean

- ✓ Baraua naturan (adibidez animalia batzuek neguan barau egiten dute)
- ✓ Erakutsi mapan zein herrialdetan ospatzen den.
- ✓ Munduan beste kultura batzuek baraua praktikatzeko dutela azaltzea.

♦ Ikasgelan eredu praktikoa:

- 🌍 Ikasleek ezagutzen dituzten munduko ospakizunei buruz marrazten edo idazten duten mural txiki bat antolatzea, Ramadana barne.

5. Irakasleentzako baliabideak

📖 Gomendatutako liburuak:


✓ Ipuinaren adibidea: "El Ramadán de Rania"

Ipuin zoragarri honek Rania, Ramadan hilabetea gogotsu bizi duen neskato musulmanaren istorioa kontatzen du. Bere begien bidez, irakurleek garai sakratu honi lotutako tradizioak eta balioak aurkituko dituzte, hala nola baraua, otoitza eta elkartasuna. Haurrekin Ramadanaren ulermenean lantzeko eta ikasgelan kultura-aniztasuna sustatzeko hezkuntza-tresna ezin hobea da.

✓ <https://www.twinkl.co.nz/>

✓ "Ramadan, el mes sagrado" - Haurrentzako ipuin ilustratua.

✓ "Mis amigos celebran el Ramadán" – ramadana zer den modu errazean azaltzen duen liburua da.



📺 Bideoak / Podcast

- "El Ramadán explicado para niños" (Disponible en YouTube).
- <https://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/amarauna/oso/6433266/ramadanaz/>



Jarduera interaktiboak

- ✓ Ramadanen ilargiak marraztu.
- ✓ Ilargi-egutegi bat egin klasean.
- ✓ Eskulanak: farolatxoak egin: [Kit de manualidades para hacer farolillos de Ramón o Eid: hace 5 farolillos, actividad de manualidades para niños como recuerdo de fiesta de Eid o Iftar de Ramón - Etsy España](#)
- ✓ Baraua apurtzen den momentuko marrazkia. *Musulmanek* arratsean baraua apurtzeko egiten duten janaria “**Iftar**” deitzen da, eta gosari-afari da beraientzako.
- ✍ **Adibidea:** mahai bat marraztea, plater tradizionalekin, hala nola datilekin, zopa, ogia, tea, frutak...
- ✓ Eskuak besteei laguntzen
- ✦ Ramadan elkartasun eta eskuzabaltasun hilabetea da.
- ✍ **Adibidea:** pertsonak marraztea janaria partekatzen, besteei laguntzen, gaixoak bisitatzen, aspaldian ikusten ez ditugun senideak bisitatuz.



6. Gomendio batzuk

Garrantzitsua da barau egiten ari diren ikasle musulmanen beharrak kontuan izatea.

1. Ramadan garaia txango batekin bat egiten badu.

✦ Txangoa egin aurretik, familiei galdetu ea barau egiten duten hurrek egokitzapenen bat behar ba duten edo ez. Koranak esaten du "Bidaian" dagoena, ez du barau egin behar. Horretarako familiekin hitz egitean kontuan izan.

2. Hidratazioarekin malguak izatea

✦ Barau egiten ari den ikasle batek zorabio zantzuak erakusten baditu, garrantzitsua da gogoratzea islam-ean baraua hausteko aukera dagoela, osasuna arriskuan badago. Izan ere, helburua baraualdiarekin osasuna hobetzea da eta ez alderantziz.

3. Jarduera fisikoak eta esfortzukoak egokitzea

- ✦ Baraurik dauden ikasleak nekatuago senti daitezke, batez ere eguneko azken orduetan.
- ✦ Ahal izanez gero, eguneko lehen orduetan programatzen badira hobeto.
- ♦ **Adibide praktikoa:** ikasleei gorputz-hezkuntzako klasean parte hartzeko aukera ematea, jarduera arinagoekin, hala nola luzatzeekin edo intentsitate txikiko ariketarekin.

4. Bazkalorduan beste gune alternatiboak

- ✦ Ikasle batzuek nahiago dute jangelan ez egotea ikaskideek jaten duten bitartean.
- ✦ Ahal izanez gero, atsedean hartzeko, irakurtzeko edo jarduera lasaigarriak egiteko espazio lasaia eman.

RAMADAN MUBARAK

